

Mr. Bean

Mirari Martiarena

Ez dut dentistarengana joatea maite. Ez zait gustatzen. Ez dut atsegin. Urtean behin joatea komeni omen da, baina bisita horrek hila-bete batez, gutxienez, astero joanaraziko nau. Bisita bat baino gehiago egin behar-ko ditut eta urtero bezala galdetuko diot, ea ezin dizkidan egin beharreko konponketa guztiak arratsalde batean egin. Ezetz esango dit eta hortxe hasiko da urteko prozesio garestiena. Hortzetako zuloak konpontzeko poltsikoak zulatu behar baitira.

Dentistaren besaulki urdinean eseri orduko Mr. Bean burura etortzen zait. Dentistari nahi gabe anestesia zitzada sartu eta ondotik bere hortzak konpontzeari ekiten dio aurrean duen erradiografiari

begira. Ahal banu horixe egingo nukeela pentsatzen dut beti: ez dentista lurrera bota, baizik eta egin beharrekoak nire buruari ordu erdian egin eta etxera buelta. Mr. Beanek bai jakin!

Mr. Beanen esketxek eta esketxen errepikapenek, dentistaren kontsultarako ez ezik eguneroko egoera txikietarako irakaspak bikainak ematen dituzte.

Nor ez da lotsatuta sentitu parrandara joan eta dantzan ez dakielako? Ez dituelako menderatzen cumbia, zumba edo bachata erritmoak? Mr. Beanen dantzako bi pausoek munduko erritmo guztiak dantztatzeko balio dute. Gerria pendulu bat bezala ezker-eskuin mugitu, gero atzera-aurrera eta kitto! Zein ez da sentitu Mr. Bean hondartzan? Zenbat aritu zarete

malabarismoak eginez hondartzan ondo-koitsuak, edo begira ez dagoenak, ezer ikusi ez dezan? Zeinek ez du etxea margo-tzerakoan pintura potoari petardo handi bat jartzeko gogorik izan? Edo elizara bost mendetan lehen aldiz joan eta Aleluiaren “uuuuia”, “uuuuuuuuuu” gaizki abestu?

Oraingoz dentistaren esketxarekin ibiliko naiz bueltaka pare bat astean eta hitz ematen dizuet ez diodala ez dentistari ez bere laguntzaileari inongo anestesia orratzik sartuko.

Hala ere, dentistaren bat irakurtzen ari bada galdera bat: aho zuloa tramankuluz (xurgagailua, taladroa, *llave inglesa*...) beteta duen pertsona bati, zergatik egiten dizkiozue galderak? Probokatzeko? •

Emakumeek idatzitako historia pasarte

Koldo Sagasti

Historia, letra larriz, heroi anoni-moek idatzitako istorio txikiz beteta dago. Horietako batek iragan irailaren 14an izan zuen abiapuntua, Bartzelonako portuan.

“Emakumeak Gazarako Bidean” izeneko nazioarteko ekimenak bi itsasontzi abiarazi zituen Mediterraneo zeharkatu eta Israelek Gazako zerrendaren gainean ezarritako itsas blokeoa urratzeko asmoz. Ekintza solidarioa emakumeek sortua eta sustatua zen; horrela, emakume palestinarrek herri erresistentziaren historian izandako lekua aldarrikatu eta omendu nahi zuten.

Hiru aste geroago, urriaren 5ean, bidaia gorabeheratsu baten ostean, bi be-

laontzietako bat, “Zaytoun”, helmugara iristeko 30 itsas milia eskasetara zegoen. Lehorrean, berriz, gazatarrek harrera beroa zuten prest ontziko andre ausartentzat. Erregimen sionistako gerraontziek, bestalde, bestelako amaiera zeukaten aurreikusita elkartasun bidaia horretarako. Nazioarteko uretan, eta legez kontra, barkuari eraso egin eta hango hamahiru emakumeak bahitu egin zituzten. Bitartean, Gazako hondartzan ekintzaileei ongi etorria egiteko zain zeudenei soinu-bonbak jaurti zizkieten.

“Zaytoun” ontziko andreen ekintzak helburu argia zuen: nazioarteko iritzi publikoaren arreta Gazako populazioak pairatzen duen setioaren gainean jar-

tzea. Halaxe adierazi zuen Sandra Barri-larok, argazkilari bilbotarra eta elkarta-sun ontzidiko bidaiarietako bat, Israele-tik deportatuta iritsi berrian: «Gu ez gara istorio honen protagonistak, sala-keta baten bozgorailuak baizik».

Emakumeen balentriak, baina, ez du apenas oihartzunik izan Mendebaldeko hedabide hegemonikoetan, bidaiarien artean itzal handiko pertsonaiak baziren ere, besteak beste, Mairead Maguire, 1976an bakearen Nobel saria eskuratu zuen irlandarra. Akaso elkartasun istorio hau historiaren orrialde anonimoak betetzen dituen horietakoa izango da. Herri zanpatuen historia letra xehez idazten da, nonbait. •